

KONTROL MOZIOA

Intxaurrondo komunikatzeko barne-busa dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko urriaren 14ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondo auzoak mugikortasun-arazoa du, batez ere barne-komunikazioari dagokionez, hau da, Intxaurrondo Zaharra eta Intxaurrondo Hego arteko komunikazioa hain zuzen.

Kontuan izan behar dugu, egun, zerbitzu gehienak Intxaurrondo Hegoan daudela; hala nola, ikastetxeak (Intxaurrondo ikastola, Intxaurrondo haur eskola, Intxaurrondo Hegoa ikastola eta Lauaizeta ikastola), Txara I eta Txara II, Matia Fundazioa, anbulatorioa, kiroldegia edo Intxaurrondo kultur etxea.

Jakina da ere, Intxaurrondok duen orografia bereziagatik eta batetik bestera dagoen distantzia dela eta, eguneroko mugikortasuna zailtzen dela Intxaurrondon 6.000 bat auzokiderentzat.

Urteak dira auzoko hainbat eragilek, Intxaurrondo Zaharreko Bizilagun Elkarateak gidaturik, arazo honi aurre egiteko auzo barneko autobusa eskatzen ari direla. 2019An jada, 2.000 sinadura baino gehiago bildu zituzten auzoan eta eskaera luzatu zioten Udal Gobernuari.

EH Bilduren eskutik ere, Intxaurrondoko auzokideen eskaera eraman izan dugu Udalbatzara, bai eta urteko aurrekontuetan emendakin gisa sartu, baina orain arte Udal Gobernuak ez du zerbitzu hori jarri.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

2019ko uztailaren 22ko Administrazio Kontseiluan egindako eskaerari erantzunez, Dbuseko zuzendaritzak Intxaurrendoko bizilagunek auzo osoari zerbitzua emango dion mikrobus zirkular bat ezartzeko egindako eskaera aztertu zuen.

Baina horren aurretik, 2019ko apirilaren 11n, Ekialdeko Barrutiaren eskaera bati erantzunez, Dbusek bertan mikrobusaren gaia jorratu zuen.

Azken finean aurkeztu zen txostenean, Intxaurrendon dauden autobusen dauden konexioak, zerbitzu berriaren maiztasunak, kostuak eta bidaiari berrien estimazioak xeheki azaldu ziren. Txosten horretan hainbat ondorio eta aukera aurkeztu ziren, eta zerbitzua martxan jartzeko gutxi gorabeherako aurrekontu bat.

Hala ere, nahiz eta eskaera zabaldua eta historikoa izan eta nahiz eta, Dbusek txostena egin, Udal Gobernuak erabaki zuen ez zuela zerbitzua martxan jarriko eta horrela jarraitzen du gaur egun ere.

Esan beharra dago, eskaera bere horretan jarraitzen duela eta oraindik ere, hainbat direla behar hori duten Intxaurrendoko bizilagunek eta eragilek.

Baina ez hori bakarrik, eta Ekialdeko Barrutian landu berri den Plan Estrategikoaren Esparru Estrategikoak eta Ekintza Planak honela jasotzen du:

“konektibitate fisikoari dagokionez, beharrezkoa da Barrutiaren barruko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea garraiobide jasangarrien bidez... garraio publikoaren bidezko konexio berriak ezarriz”

“Barrutiaren garraio publikoaren barne-konexioak ez dira nahikoak herritarren pertzepziotik, bereziki osasunarekin eta zaintzarekin lotutako ekipamenduetara iristeko ibilbideei dagokienez”

Eta zehazki ekintza-planaren barruan, E10 ekintzari dagokionez, Dbus eta Dbizi zerbitzuak egokitzea Ekialdeko Barrutian honela dio:

“Barrutia barrutik lotzen duten garraio publiko kolektibo eta indibidualeko udal-zerbitzuak zabaltzea, oinarrizko beste zerbitzu batzuei lotutako ibilbideak kontuan hartuta, hala nola osasun-zerbitzuak,

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

bai eta hiri-sarearen ezaugarriak eta orografia ere. Ibilgailu elektrikoen garraio publikoko flota ordezteko pixkanakako lanketa.”

Hori dela eta, ekintza zehatzak ere aurreikusten dira:

- Gaur egungo Dbus ibilbideen gabezien azterlan parte-hartzailea, barrutiko eremuen arteko konexio faltari dagokionez, eta zerbitzua tokiko beharren arabera egokitzea edo zabaltzea.
- Minibus elektrikoaren proiektu pilotua barrutian.

Hortaz, aspaldiko eskaera izanik eta Intxaurrondo auzoan benetako beharra dagoenez, gaiari buruz galdetu genion Udal Gobernuari. Zinegotzi ordezkariak emandako erantzunak entzun genituen non eta 2019 urteko txosten bereko argudioak erabiltzen ziren: Intxaurrondo barneko autobus-lineak, Lizardiko eskailera mekanikoen erabilera eta aurrekontua.

Argudioak hori izanik ere, urteetako eskaera dela kontuan hartuta eta Intxaurrondo duen behar bat dela baieztatuta, EH Bilduren ustetan gaiari behingoz heltzeko une dela iruditzen zaigu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Intxaurrondo auzoko komunikazio hobetzeko barne-busaren proba pilotu bat jartzeko 2025ean.

Donostian, 2024ko urriaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia